



Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan trantsizio ekologiko jasangarria eta bidezkoa sustatzeko programa arautzen duten oinarri arautzaile orokorrak

III ERANSKINA - TRANTSIZIO EKOLOGIKO JASANGARRI ETA BIDEZKOA: GAITASUNAK

Bizialdi osoko ikaskuntzarako sisteman pertsonen trebezia eta gaitasun ekologikoak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikokoak.

Urtea :2022 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Testuinguru egokia sustatzea, bizialdi osoko ikaskuntzak aukera eman diezaien pertsonak gaitasun, trebetasun, ezagutza eta konpetentzi berdeak eskuratu eta gara ditzaten, lurraldea trantsizio ekologiko jasangarri eta bidezkorantz eraldatzen aktiboki parte har dezaten.

ENTITATE ONURADUNAK

2.1 Entitate onuradunak izango dira Unibertsitaterik kanpoko hezkuntza sistemako ikastetxeen sareko entitateak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren funts publikoen bidez finantzatutakoak eta entitate horien interesak ordezkatzen dituzten taldeak eta elkarteak eta unibertsiteak. Entitateek Gipuzkoan eduki behar dute beren egoitza.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoiak diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7. oinarrian aipatzen den aitorten erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitateen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauetarako eraldaketa-proiektuak garatzea izango da:

- Erronka berriei eta etorkizuneko itxaropenei erantzungo dieten gaitasun berdeak sustatzea eta gizarteratzea.
- Profil berrien eskaerari erantzutea, trebetasunak eguneratzeko edo birdefinitzeko beharra.
- Gaitasun berdeak bultzatzea, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duten pertsonak jabetu daitezzen garatzen duten jardueraren inpaktu ekologikoaz.
- Ezagutzak hobetzea eta pertsonak trantsizio ekologiko jasangarri eta bidezkoak sortzen dituen aukeratarantz bideratzeko prozesuei balioa ematea.



- Trantsizio ekologikorako gaitasunak, trebetasunak, ezagutzak eta konpetentziak lantzeko estrategiak txertatzea.
- Trantsizio ekologikorako konpetentziak garatzeko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-ekintzak eta jardunbide egokiak garatzea.
- Genero-berdintasunera bideratutako trantsizio ekologikorako gaitasunak garatzeko ekintza espezifikoak garatzea.
- Ekintza positiboko neurriak antolatzea, biztanleriaren kolektiboen arteko desberdintasunak saihesteko.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

5.1 Barneko langileen kostuak gehienez 35 euro orduko izango dira hautagarria.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x 12 \times 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko **1.720 ordu hartuko dira.**

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, **69,29 euro/orduko gehienez.**

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiari dagozkienak bakarrik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan gastu mota bakoitzerako ezarritako mugekin.

5.4 Zeharkako kostuak eta/edo kostu orokorrak kostu hautagarri gisa zenbatuko dira, justifikatu beharrik gabe, diruz lagun daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15 bakarrik.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 95 izango dira.

EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.



BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatalak, izan Europar Batasunekoak edo izan nazioartekoak, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekin.

BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: 2022ko abenduaren 12an, goizeko 12:00etan amaituko da.
- Jarduerak hasteko epea: dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.
- Proiektuen exekuzio data: 2023ko irailaren 30a.
- Proiektuak justifikatzeko data: 2023ko urriaren 30a.

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan trantsizio ekologiko jasagarria eta bidezkoa sustatzeko programaren 2022ko oinarri arautzaileak eta deialdia. (2022/11/21eko GAO 220 zk.).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/trantsizio-ekologiko-jasagarria-eta-bidezkoa/gaitasunak>

- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus